

49. atala: Bakarka

Zulo beltza

49.1.- Esan beheko adierazpen hauek egia edo gezurra diren:

	Egia	Gezurra
- Tasio oso arduratuta dago zulo beltzekin, eta urduri jarri da.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
- Kevinek sexu-saioa proposatu dio Tasiori.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
- Tasio haserretu egin da, eta ezetz esan dio hasiera-hasieratik.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
- Tasio damutu egin da ezer galdetu izanaz.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
- Kevinek adarra jo dio Tasiori eta honek pikutara bidali du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

49.2.- Kevinek adarra jo dio Tasiori, eta honek sasikume deitu dio. Irain hori eta beste hauek ezagutzen al dituzu? Lotu bakoitza bere esanahiarekin.



- |                    |                         |
|--------------------|-------------------------|
| Ahobeltza          | Koldarra                |
| Oilo bustia        | Ergela                  |
| Artaburua          | Egoskorra               |
| Haundimaundia,     | Putakumea               |
| Etxekalte          | Harroa                  |
| Kaskagorra         | Jenio txarrekoa         |
| Mokofina           | Kontuan hartzen ez dena |
| Zekena, xuhurra    | Gastatzailea            |
| Petrala, erretxina | Mihigaiztoa             |
| Sasikumea          | Sibarita                |
| Azken putz         | Diruzalea               |

## 49. atala: Bakarka

49.3.- Goiko horien artean gustukorik topatu ez baduzu, biraoak sortzeko "hiru zutabeen metodoa" duzu hemen, Antton Olariagak eta Kike Amunarrizek gomendatutakoa.

Oso sinplea da: osatu hiru zutabeko taula:

- a) Lehen zutabeen animalia desatsegin baten izena jarri, bigarrenean adjektibo iraingarri bat eta hirugarrengoa indargarri bat eta konbinatu. Horri jarraituta, zeuk sortu pare bat irain.

Zerri	gezurti	halakoa
Asto	lapur	madarikatua
Zorri	zikin	alaena
Zakur	alfer	ustela
Putre	zital	nazkagarria

*Adibidez: Zorri zikin ustela.*

---



---



- b) Jario nazkagarriak eta edukiontziak erabiliz ere sor daiteke irain mingarririk. Asmatu beste pare bat.

Lerde	ontzi	halakoa
Muki	kupel	zornetsua
Zorne	poltsa	zikina
Zirin	zaku	ustela
Kaka	kontainer	nazkagarria

*Adb: Kaka zaku halakoa.*

---



---



49. atala: Bakarka

Transkripzioa (02:39)

T- Johnson, irudika ezak 24 ordu barru zulo beltz batek irensten duela Trebiñu II.

K- Joder, zulo beltz batek?

T- Bai, aber, hik zer egingo hukek?

K- Zer egingo nukeen? Argi daukat, 24 orduko sexu-saioa.

T- Aber, baina hemen hago, ezingo hukek hori!

K- Nola ezetz?

T- Norekin ba, e? Hi, zergatik begiratzen nauk horrela?

K- Jo, ezin dut burutik kendu.

T- Zer ala?

K- Lehen galdetu didazuna, zulo beltzaren kontu hori.

T- Aber, besterik gabe, e? hizketarako aitzakia huan.

K- Kontua da bi hilabete pasatxo daramatzagula hemen, bakar-bakarrik.

T- Bakarrik ez, elkarrekin.

K- Bai, elkarrekin, baina... badakizu...

T- Bazekiat zer?

K- Elkar-elkarrekin egon gabe, biak bat.

T- Baina, zer esaten ari haiz, Johnson?

K- Badakizu zertaz ari naizen.

T- Hi.. hi.. hiri gizonak ez zaizkik gustatzen, ezta?

K- Hori al da zure aitzakiarik onena?

T- Ez, ezinezkoa duk, ez.

K- Zer da ezinezkoa? Sexuaz ari gara; ez dizut ezkontzeko eskatzen.

T- Baina nik ezingo nukek. Ezkontua nagok, badakik, Antxon eta...ez, ez.

K- Ezkontza horrek ez du baliorik hemen.

T- Osasunean eta gaixotasunean,e? Pobrezian eta aberastasunean, zeruan eta lurrean.

K- Ikuspegi zientifikotik begirata, ez gaude zeruan; espazioan gaude.

K.- Bueno, bueno.

K.-... eta gainera, ezkontzetan ez da zerua eta lurrarena aipatzen.

T- Baina erotu egin al haiz edo zer?

K- Erotu ez, berotu.

K- Espazioan ez da existitzen infidelitaterik, Tasio.

T- Egoskorra haiz bada, e?

K- Egoskorra eta oso gogorra. Inor ez da enteratuko.

T- Nik jakingo nukek, ordea, oroitzapenak izango nizkikek.

K- Zer esan nahi duzu horrekin? Burutik pasa zaizula? Aukerarik ba al dut?

T- Baina benetan ari haiz esaten hik eta nik?

K- Nik argiago ezin dizut esan. Kobazulora jaitsi nahi zaitut, Tasio.

T- Jakin izatera ez nian ezer galdetuko.

K- Zulo beltzaz ari al zara?

T- Bai, hiregan izan duen efektu hau ikusita, ez.

K- Zuk daukazu nigan efektu hori, matxote. Kar, kar, kar!

T- Baina txantxetan ari al haiz?

K- Kar, kar, kar... Urduri jarri zara, e, Tasio?

T- Sasikumea!

K- Ia konbentzitu zaitut ala?

T- Joan hadi popatik hartzera, e?

K- Hori proposamen bat al da?

49. atala: Bakarka

## Erantzunak

49.1.-

	Egia	Gezurra
- Tasio oso arduratuta dago zulo beltzekin, eta urduri jarri da.	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
- Kevinek sexu-saioa proposatu dio Tasiori.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
- Tasio haserretu egin da, eta ezetz esan dio hasiera-hasieratik.	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
- Tasio damutu egin da ezer galdetu izanaz.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
- Kevinek adarra jo dio Tasiori eta honek pikutara bidali du.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

49.2.-

Ahobeltza	⇨	Mihigaiztoa
Oilo bustia	⇨	Koldarra
Artaburua	⇨	Ergela
Haundimaundia	⇨	Harroa
Etxekalte	⇨	Gastatzailea
Kaskagorra	⇨	Egoskorra
Mokofina	⇨	Sibarita
Zekena, xuhurra	⇨	Diruzalea
Petrala, erretxina	⇨	Jenio txarrekoa
Sasikumea	⇨	Putakumea
Azken putz	⇨	Kontuan hartzen ez dena